



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko otsailaren 16a

12. ZK.

### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, Tuteran zainketa aringarrietako unitate bat abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, SOS-Nafarroako kudeaketa sistema ezartzeko epeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak alokairuan dituen lokal eta eraikinei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Azkoiengo suhiltzaileen parkeko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Zangozako Andre Mariaren elizari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitalerako aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Baztan-Bidasoa eskualdean argi-indarraren horniduran izandako mozketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, gastuak ordaintzeko laguntza jasotzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, PFEZren aitortpena egiten laguntzeko programa informatikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Tuteran zainketa aringarrietako unitate bat abian jartzeari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Tuteran zainketa aringarrietako unitate bat abian jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 24ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tuteran zainketa aringarrietako unitate bat abian jartzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Zein proposamen zehatz egingen du Osasun Departamentuak zainketa aringarrietako zerbitzua garatzeko?

Une honetan proposamen multzo bat aztertzen ari gara, horien artean eraginkorra eta abantaila gehien dituen aukeratze aldera.

Zerbitzu horretan diharduten profesionalak Osasun Departamentuaren menpe egonen al dira?

Zerbitzua antolatze modu desberdinak aztertzen ari gara:

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kontratatutako langileekin.

– Espainiako Minbiziaren aurkako Elkartearekin eginiko itun baten bidez; izan ere, elkarte horrek etxeko zainketa aringarrietako 60 unitate baino gehiago baititu abian Espainian.

– San Juan de Dios ospitalearekin dugun ituna zabalduz. Izan ere, Osasunbideak gaur egun badu harekin zainketa aringarriak ospitalean emateko itun bat, baita etxeko zainketa aringarrien programa bat ere, oinarrizko laguntza zerbitzuarekin koordinatuta, Iruñerriko eta Nafarroako iparraldeko eta ekialdeko oinarrizko barrutietarako.

Hitzarmenen bat egin behar al da Minbiziaren aurkako Elkartearekin, diru truk zerbitzu hori kontrola dezan?

Minbiziaren aurkako Elkartearekin ituna egiten bada eta bertako langileak arduratzen badira zerbitzu hori emateaz, Tuterako barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako eta Reina Sofía Ospitaleko zuzendaritzekin koordinatuta jardunen dute, eta aipatu ospitaleko onkologia zerbitzuaren zuzendaritzapean egingen dute.

Zainketa aringarrietako zerbitzu hori ezarri behar al da Nafarroako beste leku batzuetan?

Zerbitzu hori Nafarroa osoan ezartzeko asmoa dago, Tuterako barrutitik hasita.

Zein epe ezarri du Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak hain beharrezkoa den eta medikuntzaren arloko profesionalak hainbestetan eskatu duten zerbitzu hori abian jartzeko?

Aurtengo ekitaldian programa Tuterako barrutian ezartzea espero dugu. Ondoren Foru Komunitate osora zabalduko da Tuterako esperientziaren arrakasta ikusita aukeratzen den formularen arabera.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 1ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, SOS-Nafarroako kudeaketa sistema ezartzeko epeei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak SOS-Nafarroako kudeaketa sistema ezartzeko epeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 17ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du SOS-Nafarroako kudeaketa sistema ezartzeko epeei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Apirilaren 20an probak bukatuta zeuden eta produkziara atera da SOS Nafarroa zentroaren kudeaketa-sistema?

Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu teknikoek hainbat proba egin dituzte Positron Fase II sistemarekin berori produkziara atera aurretik.

Probaren emaitzei dagokionez, esan behar da 60.000 proba-ziklo oso baino gehiago egin direla (SOS-Nafarroak urtebetean kudeatzen dituen kasuen herena baino pixka bat gutxiago egiten dute). Proba horien artean erabiltzailearen interfazea egiaztatu da, baita karga, kopurua, eskuragarritasun handia eta errendimendua ere.

Era berean, probak egin dira instalazioa, konfigurazioa, eragiketen prozedura eta dokumentazioa egiaztatzeko.

Proba horiek guztiak apirilaren 20a baino lehen egin dira.

Hala eta guztiz ere, esan behar da egun horren ondotik, bai erabiltzaileen iradokizunez, bai funtzionaltasun batzuk zuzentzeko, sisteman egitako aldaketak eta hobekuntzak berriro probatzen direla sistema produkziara atera aurretik. Horrela, SOS-Nafarroaren funtzionamendua kaltetu dezaketen eraginak saihestu nahi dira.

Positron Fase II sistema produkzioan sartzeari dagokionez, esan behar da produkzioan sartzeko prozedurak hainbat etapa dituela. Lehen etapan sistema gaueko txandan jartzen da funtzionamenduan, goizeko 1:00etik 6:00ak arte. Etapa horrek 2 aste iraun zuen (aurreikuspena 3 astekoa zen). Bigarren etapan sistema goizeko ordutegian jarriko da funtzionamenduan, goizeko 7:00etatik 14:00ak arte, 3 edo 4 astez. Azkenik, ekainaren hasieran Positron Fase II sistema 24 orduz produkzioan jartzeko asmoa dago.

Behin-behineko harrera egin al da, eta aurreikusitako kopurua ordaindu al zaio enpresari?

Oraindik ez da produkzioan erabat sartzeari buruzko dokumentua sinatu; beraz, une horretan ordaindu beharreko diru kopurua ere ez da ordaindu.

Kontratua betetzeari dagokionez, izan al da inolako gorabeherarik?

Gorabehera garrantzitsuena lanak egiteko epeari dagokiona izan da.

Kasua bada, zer beste neurri hartu dira kontratua beteko dela ziurtatzeko?

Kontratuan aurreikusitako zehapenak aplikatu dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 31n

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak alokairuan dituen lokal eta eraikinei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako Gobernuak alokairuan dituen lokal eta eraikinei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 17ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak alokairuan dituen lokal eta eraikinei buruz eta esleituta dauzkan eginkizunetarako lokalak eta eraikinak jabetzapean edukitzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak dauzkan aurreikuspenei edo jarduketa ildoet buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Eskaerari erantzunez, honekin batera doan I. Eranskinean agertzen da Nafarroako Gobernuak alokatuta dauzkan lokal eta eraikinen zerrenda, xehetasunekin. Bertan alokairuaren zenbatekoa, lokala zertarako erabiltzen den eta errentamendu-kontratuaren iraupena azaltzen dira.

Esleituta dauzkan eginkizunetarako lokalak eta eraikinak jabetzapean edukitzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak dauzkan aurreikuspenei edo jarduketa ildoet buruz, esan behar da Gobernuak departamentuen artean bulegoak berriro esleitzeko proposamenaren jakinaren gainean egotearen berri eman zuela 2003ko otsailaren 24ko bileran. Proposamen horren laburpena txosten honen II. eranskin gisa doan laukian jasotzen da, eta jadanik hasi da betetzen.

Ondoren izan zen Gobernu aldaketaren eta departamentu-egituraren aldaketaren ondorioz, behar berriak sortu ziren, horietako batzuk berehala erantzun beharrekoak, eta ahal zen heinean erantzun zitzaien.

Aldaketarik nabarmenena Vianako Printzea Erakundea-Kultura Departamentua Navarrería kaleko 39.ean kokatzea izan zen, behin betiko doitzearen zain.

Inbertsioei dagokienez, hona azpimarratu beharrekoa:

– Maristen ikastetxearen balizko erabilerak eta kostua aztertzea.

– Erredentziotarren eraikina egokitzea eta zaharberritzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuko bulegoak jartzeko. Proiektu hori oraindik ez da adjudikatu.

– Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarentzako bulegoen eraikin bat eraikitzea González Tablas kaleko orubean. Proiektu hori ere ez da oraindik adjudikatu.

– Foruzaingoak Belosogoitin duen polizia-etxea handitzea eta zaharberritzea, orainsu idatzitako eta onartu gabe dagoen Plan Gidariaren arabera.

– Iruñeko Kale Nagusiko Teresatarren ikastetxea egokitzea musika kontserbatorio gisa erabiltzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 31n

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

## I. ERANSKINA

ERRENTARIA	LOKALAREN HELBIDEA	HERRIA	ONDASUN MOTA	ALOKAIRUA	KONTRATUAREN HASIERA DATA
NG - Ingurumena, Lurrealdearen Antolamendua eta Etxebizitza - Oihan antolamendua	San José auzoa	Itzaltzu	Garajea	64,19	
NG - Ingurumena, Lurrealdearen Antolamendua eta Etxebizitza - Oihan antolamendua	Mantxo Alorra z/g	Otsagabia	Garajea	64,19	
NG - Ingurumena, Lurrealdearen Antolamendua eta Etxebizitza - Oihan antolamendua	Abarrategi 10	Lakuntza	Garajea	71,74	
NG - Herrilanak, Garraioak eta Komunikazioak - Gatz biltegia	Industrialdea	Iruña	Biltegia	1.742,46	
NG - Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura - Bulegoak	-	Iruña	Bulegoa	175,52	
NG - Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura - Eskualdeko bulegoa	Caritat kalea, 2-beh. ezk.	Tutera	Bulegoa	830,38	19/5/82
NG - Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura - Eskualdeko bulegoa	Caritat kalea, 2-beh. esk.	Tutera	Bulegoa	872,21	1/2/80
NG - Ekonomia eta Ogasuna - Euskaltzaindia	Oliveto Kontea 2-2.	Iruña	Bulegoa	1.036,57	5/12/84
NG - Ekonomia eta Ogasuna - Aurrekontuak	Karlos III., 6-1.	Iruña	Bulegoa	3.482,67	1/4/85
NG - Herrilanak, Garraioak eta Komunikazioak - Espeleologia biltegia	Ruiz Alda 10 / Pascual	Iruña	Biltegia	288,92	24/1/86
NG - Osasuna - CEMS eta SATSE sindikatuak (lagatakoa)	Paulino Caballero 4-1. eta 2.	Iruña	Bulegoa	292,91	24/1/86
NG - Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria - Eguneko zentroa	Gaztelugibela, 1	Iruña	Bulegoa	2.402,99	26/9/94
NG - Ingurumena, Lurrealdearen Antolamendua eta Etxebizitza - Oihan antolamendua	Amazabal 38	Leitza	Garaje-biltegia	196,38	1/2/89
NG - Osasuna - Adimen gaixoentzako etxebizitza	Buenaventura Íñiguez 10-2. D	Iruña	Pisua	559,93	5/1/92
NG - Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria - Kanpalekua	Gerendiain (Ulzama)	Gerendiain	Finka	0,00	15/6/60
NG - Osasuna - Osasun Zuzendaritza Nagusia	Irunlarrea 39-41	Iruña	Bulegoa	5.756,40	1/6/98
NG - Osasuna - Garageak	Irunlarrea 39-41	Iruña	Garajea	131,74	1/6/98
NG - Osasuna - Osasun Zuzendaritza Nagusia	Irunlarrea 39-41	Iruña	Bulegoa	11.026,01	1/1/01
NG - Osasuna - Osasun Zuzendaritza Nagusia	Irunlarrea 39-41	Iruña	Bulegoa	5.228,70	1/1/01
NG - Osasuna - Osasun Zuzendaritza Nagusia	Irunlarrea 39-41	Iruña	Bulegoa	630,42	1/1/01
NG - Herrilanak, Garraioak eta Komunikazioak - Elurra kentzeko makinarentzako garajea	Berexi, 8	Auritz	Garajea	89,87	15/6/90
NG - Ingurumena, Lurrealdearen Antolamendua eta Etxebizitza - Ingurumen Zuzendaritza Nagusia	Alondegi 1, 9.a	Iruña	Biltegia	1.505,16	1/7/02
NG - Osasuna - Oinarrizko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuneko Zuzendaritza	Fray Diego, 37	Lizarrta	Bulegoa	2.032,62	1/8/87
NG - Ingurumena, Lurrealdearen Antolamendua eta Etxebizitza - Mendi zaindariak	Mendikoa z/g	Orbaitzeta	Garajea	60,00	27/1/03
NG - Ingurumena, Lurrealdearen Antolamendua eta Etxebizitza - Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzua	Juan de Berrueta, 5	Zangoza	Bulegoa-biltegia-garajea	348,59	17/2/03
NG - Lehendakaritza, Barne eta Justizia Departamentua - Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia	Arrieta, 11bis-7.ezk.	Iruña	Bulegoa	2.088,00	1/9/03
NG - Hezkuntza eta Kultura - Helduak euskalduntzeko zentroa	Taxoare kalea, 7 - 4. 7. bulegoa.	Iruña	Bulegoa	934,68	25/5/98
NG - Ingurumena, Lurrealdearen Antolamendua eta Etxebizitza	Ejertzitoaren etorbidea, 2	Iruña	Bulegoa	9.997,69	18/6/03
NG - Turismo Informazio Bulegoa	Kale Nagusia,1	Erriberri	Bulegoa	620,79	1/7/00
NG - Turismo Informazio Bulegoa	Kale Nagusia,2	Zangoza	Bulegoa	638,14	15/6/98
NG - Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura	Tutera 20-5.a C	Iruña	Bulegoa	2.051,19	1/3/96
NG - Toki Administrazioa	Tomás Caballero parkea, 1-6.	Iruña	Bulegoa	1.214,68	15/9/00
NG - Nafarroako Enplegu Zerbitzua	Arcadio Larraona kalea 1	Iruña	Bulegoa	14.912,59	15/3/99
NG - Enplegu Bulegoa	Agoitz 6	Iruña	Bulegoa	12.484,51	29/11/89

ERRENTARIA	LOKALAREN HELBIDEA	HERRIA	ONDASUN MOTA	ALOKAIRUA	KONTRATUAREN HASIERA DATA
NG - Enplegu Bulegoa	Vadoluengoko Monasterioa, 4	Iruña	Bulegoa	3.062,34	1/1/82
NG - Enplegu Bulegoa	Aralar plaza, 1 eta 2	Lizarra	Bulegoa	3.077,81	1/12/90
NG - Enplegu Bulegoa	García Ximenez, 3-1 behea	Altsasu	Bulegoa	2.980,11	30/11/90
NG - Enplegu Bulegoa	María Ugarte, z/g	Tutera	Bulegoa	1.836,33	1/8/85
NG - Enplegu Bulegoa	Toki Eder	Agoitz	Bulegoa	687,63	29/7/76
NG - Enplegu Bulegoa	Azokako bidea, 11-bis	Doneztebe	Bulegoa	207,05	2/1/88
NG - Eguneko zentroa (Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua)	Gaztelugibela, 1	Iruña	Bulegoa	2.402,99	1/10/89
NG - Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua - Lehendakaritza Zuzendaritza Nagusia	Leire 6,4.a	Iruña	Bulegoa	3.872,14	31/8/00
NG - Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	Puerta del Sol, 14-2. A	Corella	Pisua+garajea	771,09	4/1/97
NG - Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	Nafarroako Gorteak 5-5.a	Iruña	Bulegoa	1.043,71	6/1/97
NG - Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	Erlotokieta, 2-beh. A	Iruña	Bulegoa	4.297,55	1/9/99
NG - Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	Erlotokieta, 2-beh. B	Iruña	Bulegoa	2.258,38	1/9/99
NG - Bruselako bulegoa (kanpo ekintza)	Avenue des Arts,3/4/5-4.a	Brusela	Bulegoa	3.447,04	1/12/97
NG - Nafarroako Administrazio Auzitegia.	Iturrama 10	Iruña	Bulegoa	446,77	1/3/01
NG - Ekonomia eta Ogasuna - Fiskalitatea	Arrieta, 11bis-3.a	Iruña	Bulegoa	5.957,01	1/3/01
NG - Ingurumena, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza	Gasteizko errepidea	Lakuntza	Bulegoa	97,46	1/7/99
NG - Ingurumena, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza	Aralar 5	Lekunberri	Bulegoa	165,78	1/7/98
NG - Ingurumena, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza	Mendigorria z/g	Tafalla	Bulegoa-garajea	295,76	5/1/96
NG - Hezkuntza eta Kultura	Kale Nagusia,2	Iruña	Ikastetxea	19.721,21	1/1/00
NG - Herrilanak, Garraioak eta Komunikazioak	Lekunberriko industrialdea	Lekunberri	Nabea	392,16	20/9/99
NG - Ekonomia eta Ogasuna	Nafarroa Behera 1-3-5	Iruña	Bulegoa	1.405,39	1/7/01
NG - Ekonomia eta Ogasuna	Plazaola 2 behea	Iruña	Bulegoa	2.800,95	1/4/98
NG - Ingurumena, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza.	Karmengo Ama, 1-2.a	Ezkaroze	Bulegoa-garajea	385,35	5/1/96
NG - Hezkuntza eta Kultura	Marcelo Celayeta 75	Iruña	IWER eraikina.	3.763,69	1/9/99
NG - Sagrados Corazones ikastetxea	-	Castejón	Ikastetxea	1.390,84	9/1/97
NG - Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua	Nafarroako Gorteak 5-1.a	Iruña	Bulegoak	2.288,46	15/12/79
NG - Hezkuntza eta Kultura	Julián Arcos Escribano, z/g	Tutera	Ikastetxea	1.872,29	1/9/97
NG - Industria - Merkataritza	Taxoare 6	Iruña	Garajea	70,61	13/1/98
NG - Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua - Justizia Zuzendaritza Nagusia	Errekalde 8 behea	Berriozar	Bake epaitegia	737,78	1/9/89
NG - Ekonomia eta Ogasuna	Monjardin, 3	Iruña	Bulegoa	10.894,05	1/7/99
NG - Ingurumena, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza	Ugarte D <sup>3</sup> María 16	Tutera	2 garaje	94,94	36982
NG - Ingurumena, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza	Alduides z/g	Elizondo	Bulegoa-garajea	104,31	1/3/04
NG - Ekonomia eta Ogasuna (kanpo ekintza)	Emilio Arrieta, 11 bis - 7.a 2	Iruña	Bulegoak	1.812,65	1/2/04
NG - Herrilanak, Garraioak eta Komunikazioak (Ikus-entzunezkoen Kontseilua)	Emilio Arrieta, 11 bis - 4.a	Iruña	Bulegoak	1.423,29	

II. ERANSKINA

ADMINISTRAZIO UNITATEA	EGUNGO KOKAPENA	AZALERA	ETORKIZUNEN KOKAPENA	AZALERA	LANEN FINANTZAZIOA
TOKI ADMINISTRAZIO DEP.	Blas de la Serna, 1, 3.a eta 2.a	1.202	Arrieta, 12- (2.etik 5.era)	1.848	Bera + Ondare Zerbitzua
	Blas de la Serna, 1, 2. bulegoa	95	Arrieta, 12- (2.etik 5.era)		
NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA	Arcadio Larraona, 1	1.260	Blas de la Serna, 1 3.a eta 2.a	1.202	Bera
			Blas de la Serna, 1 2. bulegoa	95	
ANTOLAKETA ETA INFORMAZIO SISTEMEN ZUZENDARITZA NAGUSIA	Diputazioaren Jauregia	998	Arcadio Larraona, 1 1. eta 2.a	1.260	Bera
	Iratxe, 22 behea eta pisua	850	Arcadio Larraona, 1 1. eta 2.a	850	Bera
INGURUMEN, LUR. ANT. ETA ETXEB. DEP.	Alondegi, 1- (1.a eta 2.a)	1954	Ejerzitoaren etorbidea, 2	3.992	Bera
	Alondegi 1, 9.a	150		2.451	
	Yanguas y Miranda, 1.a	563			
	Tutera, 20	650			
	Tutera, 18, 5.a	159			
NEKAZARITZA EGITUREN ZUZ.NAGUSIA	Urdazubiko Monasterioa 1	2.707	Alondegi, 1- (1.a eta 2.a)	1954	Bera
		121	Tutera, 20	650	
NAFARROAKO AUZITEGI EKON.-ADM.	Iturrama 10	400	Yanguas y Miranda, 1.a	563	Ondare Zerbitzua
ARARTEKOA	Arrieta, 12 behea	262	Arrieta, 12 behea eta solairuart.	551	Bera
ESKOLA KONTSEILUA	Blas de la Serna, 1 2. a	74	Arrieta, 8, 7.a (zati bat)	150	Bera + Ondare Zerbitzua
IKUS-ENTZUNEZKOEN KONTSEILUA	Arrieta, 11bis 4.a	Ezezaguna	Arrieta, 8, 7.a (zati bat)	274	Bera + Ondare Zerbitzua
EMAKUMEAREN INSTITUTUA	Lizarra, 27 solairuartera	221	Zehazteke	400	Bera
LIBURUTEGI ZERBITZUA	Arrieta, 12 behea eta sotoa		Virgen del Puy, 1-3	1020	Bera
ADMINISTRAZIO ARTXIBOA	Ansoleaga, 12		Super-Ser zena	1.500	Bera

## **Galdera, Azkoiengo suhiltzaileen parkeko obrei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Azkoiengo suhiltzaileen parkeko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 17ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel Izu Belloso jaunak galdera egin du Azkoiengo suhiltzaileen parkeko obrei buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Su-iltzaile eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoko lehendakariak bidalitako informazioaren arabera:

1.- Obrak hartzea.

2004ko otsailaren 26an obren zuzendaritzak eginiko lanen bukaera-ziurtagiria aurkeztu zen Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialean. Ondoren, 2004ko apirilaren 19an, Azkoiengo

suhiltzaileen parkeko obrak hartzeari dagokion amaierako akta sinatu zen.

2.- Obraren azkeneko kostua.

Obraren azkeneko kostua 1.909.150,41 eurokoa izan da, BEZ barne.

Hasierako aurrekontua 1.873.773,63 eurokoa zen. Adjudikazioaren prezioa 1.761.809,18 eurokoa izan zen eta horren gainean 147.341,23 euroko azken desbiderapena izan zen, hau da, % 8,63koa.

Zuzendaritza fakultatiboaren kostua 90.151 eurokoa izan da; horretan adjudikazioaren prezioa ez da aldatu.

3.- Parkea jardunean hastea.

Asmoa da Azkoiengo suhiltzaileen parkea 2004ko uztailean hastea zerbitzua ematen. Bertan integratuko dira Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuan sartzeko oinarritzko ikastaroari dagozkion praktikak egiten ari diren ikasleak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 4an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

## **Galdera, Zangozako Andre Mariaren elizari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Zangozako Andre Mariaren elizari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 17ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak galdera egin du Zangozako Andre Mariaren elizari buruz. Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Kultura eta Turismo Departamentuak Zangozako Andre Mariaren portale erromanikoa zaintzeko eta zaharberritzeko esku-hartze proiektua aurrean egiteko asmoa du. Horretarako, aurreko urteetan



beharrezkoak diren aldez aurreko azterlanak egin dira.

2002ko martxoan portaleko harria azter zezan eskatu zitzaion Madrilgo Unibertsitate Politekniko-ko Meatzetako Ingeniaritzako Goi Mailako Eskola-ko Petrologia eta Mineralogia katedrari. Azkerketaz arduratu zen katedradunak, Icomos-Espainia erakundeko lehendakariordea den José María García de Miguel jaunak, aurreko urtean jada aztertua zuen Andre Mariaren elizaren portalea, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak hala eskatuta. Azterlanak 6.700 euroko aurrekontua zuen.

2003ko ekainean, aipatu katedrak Zangozako Andre Mariaren portale erromanikoaren andea-kuntzaren eta tratamenduaren diagnosiari buruzko azterlana aurkeztu zion Nafarroako Gobernuari,

eta eginen den kontserbazio proiektua azterlan horretan oinarrituko da, hain zuzen.

Halaber, 2003ko apirilean Andre Mariaren portalearen ortomosaikoa egiteko agindu zitzaion Omega Cartografía Digital S.L. enpresari, lurreko fotogrametriaren teknikak baliatuta. Lan hori jada aurkeztu dute eta esku-hartze proiektua prestatzeko erabiliko da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 2an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitalerako aurreikuspeni buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Lizarrako García Orcoyen Ospitalerako aurreikuspeni buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 24ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Lizarrako García Orcoyen Ospitalerako aurreikuspeni buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nolako plana dauka Osasun Departamentuak Lizarrako García Orcoyen Ospitalerako?

Lizarrako García Orcoyen Ospitaleak Lizarrako merindadeko erreferentziako ospitalea izaten jarraitu behar du, bertara joaten diren herritarren beharren arabera tamainakoa, ahaztu gabe eskualdeko ospitalea dela eta Iruñeko ospitalegitik 40 kilometrora dagoela, eta laster (autobia

amaitu ondoren) 30 minutu baina gutxiagora egonen dela.

Aurreikusi al du zerbitzu gehiago jartzea, Nafarroako osasun planak ezarri bezala?

Gaur egun 15 pertsonendako eguneko ospitale psikiatrikoa abiarazteko modua aztertzen ari da.

Presentzia fisikoaz indartu behar al ditu gaur egun guardiarik ez duten espezialitateak?

Laguntza beharren arabera beharrezkoak diren neurriak hartzen dira, horien artean presentzia fisikoko guardiak.

Eskualde horretan bizi den populazioa gero eta zahartuagoa dagoenez, Neurologiarena beharrezkotzat jotzen den espezialitatea da. Aurreikusi al du Osasun Departamentuak zerbait arlo horretan?

Lizarrako García Orcoyen Ospitaleak badu Barne Medikuntzako Zerbitzua, patologia neurologikoren bat duten gaixoei arreta egokia emateko ahalmena duena.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 2an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, Baztan-Bidasoa eskualdean argi-indarraren horniduran izandako mozketei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak Baztan-Bidasoa eskualdean argi-indarraren horniduran izandako mozketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 24ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Askotariko parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Baztan-Bidasoa eskualdean argindarraren horniduran izandako mozketei buruz. Hona Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

1. galdera:

Azken hilabeteotan Industria Seguritasunerako Zerbitzuak mozketak eragin zituzten gertakarien eta arrazoen berri izan du:

\* 2004-01-30 - Mugairiko zentraleko instalazio partikularraren matxura. Horrek Lesakako 30/13,2 KV azpiestazioa elikatzen duen 30 KV-ko "Irun-Oronoz" linea ukitu zuen.

\* 2004-02-09 - 30 KV linearen matxura, kable elektrikoan pausatu zen hegazti batek eragindakoa.

\* 2004-02-29 - Ekaitzak eta elurteak eragindako horniketa-etena.

\* 2004-03-01 - Programatu gabeko horniketa-etena, laguntza emateko maniobrek eragindakoa; izan ere, istripu bat gertatu zen "Oiartzun-Almandoz" 30 KV linean.

\* 2004-03-06 - Horniketaren etena "STR Lesaka-Nabatz" linearen 2. sostenguko isolatzaileen hausturagatik. Haustura eskopeta tiroek eragin zuten.

\* 2004-03-30 - Hilaren 6an gertatu bezala, horniketaren etena "STR Lesaka-Nabatz" linearen 2. sostenguko isolatzaileen hausturagatik. Haustura eskopeta tiroek eragin zuten.

\* 2004-04-19 - Horniketaren etena arkuaren pitzatzeagatik eta ondoren zubi bat hausteagatik, eroalea aldatzeko lanak prestatzeko laguntza lanak egiterakoan.

\* 2004-04-26 - Horniketaren etena arrazoi ezezagunengatik. Izan ere, linearen etengailua aktibatu ondoren linea osoa aztertu eta hainbat proba egin ziren, azkenean zerbitzua ematen hasi zen arte. Matxuraren arrazoia ez zen aurkitu. Batzuetan izaten dira arrazoi iragankorrek eragindako matxurak, hala nola adar bat erortzea.

\* 2004-04-28 - Horniketaren etena Las Nazas-ko ebakigailuaren eta Las Nazas-ko zentralera doan adarraren arteko eroalea hautsi zelako.

2 eta 3. galderak.

Industria Departamentuak, Industria Seguritasunerako Zerbitzuaren bitartez, bazekien eskualdean izandako horniketa etenen aurretik Iberdrola kalitatea hobetzeko lanak egiten ari zela.

Iberdrolak eskualde horretan abiaraziko duen hobekuntza programak ondoko jarduketak jasozten ditu:

- Epe laburreko ekintzak; adibidez, lineak berrikusi, hainbat tokitan zuhaitzak moztu edo inausi, arazoak atzeman eta konpontzea, sareko maniobra-etengailua instalatu, matxurek eragin txikiagoa izan dezaten, azpiestazioetako babes-ekipoak berrikusi eta berrikusketa termografikoa, lineen eta lotuneen puntu beroak atzemateko. Lan horiek guztiak egin dira edo bukatzeaz dira.

- Bestelako lan batzuk egiteko denbora gehiago behar da, adibidez, maniobra-elementu berriagoak, teleagindutako OCRak (horniketan etenik egonez gero, birjartze denborarik ez da behar), 30 KV lineen lotune berria, azpiestazioetan kondensadore-bateriak jartzea eta gaur egungo AI- 95 eroalearen tokian AI- 125 eroalea jartzea "Irun-Oronoz" linean, 20 kilometrotan zehar Irun eta Etxalar artean. Ekintza hori bereziki zaila da, egin bitartean banaketa ahulagoa izatea eragiten baitu; izan ere, 30KV beste linea, "Oiartzun-Almandoz" alegia, ez da nahikoa eskualdeko horniketa-gailurri erantzuteko.

Horren ondorioz, orain arte behintzat departamentuak ez du enpresari espedienterik irekitzeko asmorik. Gai horri lotuta, departamentuarentzat lehentasuna du Baztan-Bidasoa eskualdeak hor-

niketa elektriko egokia eta kalitatezkoa jasotzea. Hori dela eta, Iberdrolari eskatuko dio jadanik planifikaturiko hobekuntza programarekin jarrai dezan.

Eskualdeko horniketa hobetzeko plan horrek 1.000.000 euroko inbertsioa aurreikusten du eta horretatik % 35 jadanik bete da. Eskualdeko herri-tarrek ikusiko dute zerbitzuaren kalitatea gero eta hobe dela aipatu jarduketak egiten diren heinean. Ilido horri jarraikiz, eta erabiltzaileen defentsa xedetzat hartuta, departamentuak Iberdrolari eskatu dio argiaren ordainagirietan horniketa-etenen ondoriozko beherapenei buruzko araudi indarduna betetzeko.

4, 5 eta 6. galderak

Lankidetzeta eta eskualdeko zerbitzua hobetzeko asmoari jarraikiz, aurkiNafarroako Gobernuak

hitzarmen bat sinatu behar du Iberdrolarekin, oinarritzko azpiegitura-lanak egiteko. Lan horiek ez dira lehen aipatutakoak eta Nafarroa osoan egingen dira datozen hiru urteetan. Lan horien artean badira Baztan-Bidasoa eskualdean egiteko inbertsioak, 132/ 30 KV azpiestazioa ezartzea hain zuzen.

Aipatu programa betetzen hasia da eta hainbat jarduketa aurreikusten ditu 2007ra arte. Azaldu den bezala, eskualdeko erabiltzaileek zerbitzua gero eta hobe dela atzemanen dute.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 1ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontselaria: José Javier Armendáriz Quel

## Galdera, gastuak ordaintzeko laguntza jasotzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak gastuak ordaintzeko laguntza jasotzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 24ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du gastuak ordaintzeko laguntza jasotzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteei buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoiei jarraikiz:

Lehenik eta behin, itunen eta laguntza ekonomikoen artean dagoen desberdintasuna azalduko dut, galderak bi kontzeptu horiek aipatzen baititu. Ituna zerbitzu publikoak zeharka emateko modua da eta ekainaren 16ko Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legeari lotu behar zaio. Laguntza ekonomikoa, aldiz, administrazioak egiten duen sustapen jarduera da,

onura publikoa edo gizarte interesa duten xedetarako ekimen pribatuaren parte-hartzea lortzeko.

Hori azalduta, eta eginiko galderak ikusirik, gure ustez galderaren xedea kontzeptu horietatik bigarrena da, hau da, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak emandako dirulaguntzak, eta ez itunak, beraz.

Baieztafen hori abiapuntutzat hartuta, jarraian ematen den informazioa sistematizatuta dago, eta bereizten dira, alde batetik, zaharrak eta ezgaitasunak dituzten pertsonak, eta bestetik, gizarteratze arloa, azken hau oso konplexua baita.

A) Zaharrak eta ezgaitasunak dituzten pertsonak.

1) Zaharren eta gizarte-boluntarioen arloko entitateentzako 2004ko dirulaguntzak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako apirilaren 2ko 1209/2004 Ebazpenean araututa daude (2004ko apirilaren 30eko 52. NAO).

Ezgaitasunak dituzten pertsonen arloko entitateentzako 2004ko dirulaguntzak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako apirilaren 9ko 1/2004 Ebazpenean araututa daude (2004ko otsailaren 2ko 14. NAO). Ebazpen hori martxoaren 4ko 862/2004 Ebazpenak (2004ko maiatzaren 5eko 54. NAO) aldatu zuen.

Aurtengo ekitaldian aipatu dirulaguntzak jaso dituzten entitateak agertzen dira laburtuta ondoko taulan:

### DIRULAGUNTZAK 2004

FUNTZIONAMENDUA ETA JARDUERAK		
ENTITATE MOTA	DIRUZ LAGUNDUTAKO ENTITATE KOPURUA	ZENBATEKOA (EUROTAN)
ZAHARREN ELKARTE ETA KLUBAK	178	898.150,43
ZAHARREN BESTE ELKARTE BATZUK	9	290.865,57
EZGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEN ELKARTE ETA ENTITATEAK	28	5.409.902,77
BOLUNTARIOAK	22	134.191,98
<b>GUZTIRA</b>	<b>237</b>	<b>6.733.110,75</b>

EKIPAMENDU TXIKIAK		
ENTITATE MOTA	DIRUZ LAGUNDUTAKO ENTITATE KOPURUA	ZENBATEKOA (EUROTAN)
ZAHARREN ELKARTE ETA KLUBAK	37	38.018,95
ZAHARREN BESTE ELKARTE BATZUK	5	9.532,05
EZGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEN ELKARTE ETA ENTITATEAK	EBATZI GABE	
<b>GUZTIRA</b>	<b>42</b>	<b>47.551,00</b>
TEKNOLOGIA BERRIETAN ALFABETATZEA HIRUGARREN ADINA		
ENTITATE MOTA	DIRUZ LAGUNDUTAKO ENTITATE KOPURUA	ZENBATEKOA (EUROTAN)
ZAHARREN ELKARTE ETA KLUBAK	4	78.006,44
ZAHARREN BESTE ELKARTE BATZUK	0	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>4</b>	<b>78.006,44</b>
OPOR PROGRAMAKEZGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK		
ENTITATE MOTA	DIRUZ LAGUNDUTAKO ENTITATE KOPURUA	ZENBATEKOA (EUROTAN)
ELKARTEAK ETA ENTITATEAK	5	42.008,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>5</b>	<b>42.008,00</b>

2) Bestalde, aurreko ekitaldietan aipatu dirulaguntzak jaso dituzten entitateak agertzen dira laburtuta ondoko taulan:

## DIRULAGUNTZAK

FUNTZIONAMENDUA ETA JARDUERAK	2003. urtea		2002. urtea		2001. urtea		2000. urtea	
ENTITATE MOTA	KOP.	ZENBATEKOA	KOP.	ZENBATEKOA	KOP.	ZENBATEKOA	KOP.	ZENBATEKOA PEZETATAN
ZAHARREN ELKARTE ETA KLUBAK	187	878.767,75	183	887.353,26	185	140.661.638	171	133.147.604
ZAHARREN BESTE ELKARTE BATZUK	14	310.017,79	13	288.409,10	15	51.513.849	15	53.157.830
EZGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEN ELKARTE ETA ENTITATEAK	28	5.122.819,22	27	4.329.715,35	27	680.057.601	28	619.720.366
<b>GUZTIRA</b>	<b>229</b>	<b>6.311.604,76</b>	<b>223</b>	<b>5.505.477,71</b>	<b>227</b>	<b>872.233.088</b>	<b>214</b>	<b>806.025.800</b>

EKIPAMENDU TXIKIAK	2003. urtea		2002. urtea		2001. urtea		2000. urtea	
ENTITATE MOTA	KOP.	ZENBATEKOA	KOP.	ZENBATEKOA	KOP.	ZENBATEKOA	KOP.	ZENBATEKOA PEZETATAN
ZAHARREN ELKARTE ETA KLUBAK	31	30.050,61	34	29.774,23	25	4.881.550	26	3.500.000
ZAHARREN BESTE ELKARTE BATZUK	0	0,00	1	276,38	1	118.450	0	0
EZGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEN ELKARTE ETA ENTITATEAK	AURREKO ATALEAN SARTU DIRA							
<b>GUZTIRA</b>	<b>31</b>	<b>30.050,61</b>	<b>35</b>	<b>30.050,61</b>	<b>26</b>	<b>5.000.000</b>	<b>26</b>	<b>3.500.000</b>

TEKNOLOGIA BERRIETAN ALFABETATZEA	2003. urtea		2002. urtea		2001. urtea		2000. urtea	
	KOP.	ZENBATEKOA	KOP.	ZENBATEKOA	KOP.	ZENBATEKOA	KOP.	ZENBATEKOA PEZETATAN
ZAHARREN ELKARTE ETA KLUBAK	3	4.506,02	3	4.900,05	2	8.200.000		
ZAHARREN BESTE ELKARTE BATZUK	4	135.043,61	3	129.151,81	1	2.000.000		
GUZTIRA	7	139.549,63	6	134.051,86	3	10.200.000		

OPOR PROGRAMAK EZGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK	2003. urtea		2002. urtea		2001. urtea		2000. urtea	
	KOP.	ZENBATEKOA	KOP.	ZENBATEKOA	KOP.	ZENBATEKOA	KOP.	ZENBATEKOA PEZETATAN
ELKARTEAK ETA ENTITATEAK	5	42.008,00	5	70.639,73	5	11.753.463,00	5	10.589.546,00
GUZTIRA	5	42.008,00	5	70.639,73	5	11.753.463,00	5	10.589.546,00

## B) Gizarteratze arloa

1) Gizarteratze arloko entitateentzako 2004ko dirulaguntzak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako otsailaren 23ko 760/2004 Ebazpenean araututa daude (2004ko martxoaren 29ko 34. NAO; akatsen zuzenketa: apirilaren 7ko 42. NAO).

Ondoko tauletan aipatu deialdiaren bidez 2004an dirulaguntza jaso duten entitateak agerzen dira, baita 1999-2003 aldian dirulaguntza jaso dutenak ere. Arlo horrek hartzen dituen programen

aniztasuna dela eta, taulan entitate bakoitzari dagokion informazio xehea azaltzen da, ezinezkoa baita informazio guztia era homogeneoan sistematizatzea.

Dirulaguntzak hiru ataletan banatzen dira. Atal horietan programak helburuen eta xedetzat dituzten taldeen arabera sailkatzen dira:

- Gutxiengo etnikoen sustapena
- Etorकिनен gizarteratzea
- Elkarteak eta entitateak orokorrean

## Elkarte eta entiteentzako dirulaguntzak

Entitatea	Proiektua/Ekintza	2004ko dirulaguntza eurotan	2003ko dirulaguntza eurotan	2002ko dirulaguntza eurotan	2001eko dirulaguntza pezetatan	2000ko dirulaguntza pezetatan	1999ko dirulaguntza pezetatan
Centro Oasis	Gizarteratze programa	21.065,86	21.065,86	21.065,86	4.105.065	4.105.065	3.985.500
Antox	Gizarteratze eta aisialdiko proiektua	20.235,05	19.788,47	19.788,47	3.292.524	3.292.524	1.132.500
Boluntariokristauak	Abegi etxea espetxeen eremuan	21.878,89	21.396,03	21.396,03	3.560.000	3.300.000	3.100.000
Hogar Zoe	Abegi zentroa	90.172,70	81.172,70	81.172,70	10.506.000	10.506.000	
Sta. Lucía ADSSIS Fundazioa	EISOVI	156.277,15	179.801,45	204.752,25	37.069.886	37.069.886	35.989.192
El Marinal	Sentsibilizatzea, laguntza eta orientabidea drogamenpekotasunaren eremuan (San Adrián)	2.554,29	2.554,29	2.554,30	425.000	400.000	327.373
El Camino	Sentzibilizatzea, aurrea hartzea eta orientabidea drogamenpekotasunaren eremuan (Lizarra)	2.103,54	2.103,54	2.103,54	350.000	258.250	250.000
Bartolomé de Carranza Fundazioa.	Ikerketa, prestakuntza, dokumentazioa eta aholkularitza gizarte gaietan	42.965,23	42.071,00	42.071,00	7.000.000	7.000.000	7.000.000
ADEFAD	Senideen autolaguntza drogamenpekotasunaren arloan	300,00	300,50		50.000		

Entitatea	Proiektua/Ekintza	2004ko dirulaguntza eurotan	2003ko dirulaguntza eurotan	2002ko dirulaguntza eurotan	2001eko dirulaguntza pezetatan	2000ko dirulaguntza pezetatan	1999ko dirulaguntza pezetatan
Drogazaleen Elkartea Tütera	Senideen autolaguntza eta komunitatearen esku-hartzea drogamenpekotasunaren arloan	5.578,55	5.578,55	5.578,55	928.192	928.192	898.541
HEGOAK	Sentsibilizatzea drogamenpekotasunaren arloan	1.502,53	1.502,53	1.502,53	250.000		
Ibarre Multzoa	Gizarteratze proiektua	11.621,22	11.364,74	11.364,74	1.890.933	1.890.933	
Nafarroako Pobreziaren aurkako Sarea	Nafarroako gizarte ekintzan aritzen diren elkarte eta entitateak koordinatzea	11.029,70	9.470,53	9.470,53	1.575.763	1.310.000	334.585
Gaztelan	– Lan arloko orientabidea eta informazioa – Enplegua gentzia- Aholkularitza – Laneratzeko ekimen ekonomikoak – Kudeaketa etakoordinazioa.	158.260,90	143.224,11	143.224,11	23.830.484	21.252.844	
Elikagai bankua	Elikagai bankua	21.172,59	27.172,59	27.172,59	4.521.139	4.521.139	4.376.708
Mensajeros de la Paz							290.020
ANALU	Ludopatiak					414.428	401.189
ARALAR ludopatak	Ludopatiak		2.764,66	2.764,66	460.000	416.630	403.321
BIDARE	Familia laguntza						2.796.749
Amnesty International	Gizarte sentsibilizazioa		9.245,78	9.245,78	1.538.369	1.538.369	1.489.225
Salhaketa	Presoak gizarteratzea	90.000,00	19.646,14	19.646,14	2.066.000	2.066.000	2.000.000
Vida Nueva	Drogazaleak gizarteratzea	7.989,80	7.813,16	7.813,16	1.300.000	1.300.000	850.000
Inyasida	IHESdunak gizarteratzea						750.000
Gizakia Helburu	Drogazaleak gizarteratzea	47.769,39	33.010,94	33.010,94	5.492.559	5.492.559	5.317.095
Itxaropenaren telefonoa	Itxaropenaren telefonoa		54.091,00	53.820,63	9.000.000	8.925.000	7.725.000
Iruñeko Udala (Cañadas)	Tailer-eskola.			30.050,61	5.000.000	11.228.000	
Nafarroako Ospitaleko boluntario elkarte	Gaixoen laguntza			1.983,34		275.000	
Lourdesko Ama Birjina Elizbarrutiko laguntza elkarte	Gaixoen laguntza		1.564,13	1.564,13	260.250	250.000	200.000
ADEFAD	Familia laguntza		300,50		50.000		
Tuterako Caritas					100.000		
Ijitoen idazkaritza orokorra				45.358,02			
La Majari elkarte	Urtemugako ekitaldirako laguntza			2.117,00			
Traperos de Emaüs fundazioa	Urtemugako ekitaldirako laguntza			1.850,00			
Nafarroako Mugarik Gabe elkarte	Zentro okupazionala	22.072,61	21.585,48				

## "Etorkinak gizarteratzeko laguntza-programa"

Entitatea	Proiektua/Ekintza	2004ko dirulaguntza eurotan	2003ko dirulaguntza eurotan	2002ko dirulaguntza eurotan	2001eko dirulaguntza pezetatan	2000ko dirulaguntza pezetatan	1999ko dirulaguntza pezetatan
SOS ARRAZAKERIA	Salaketen bulegoa Kulturarteko aretoa	56.491,48	53.154,88	53.154,88	8.844.228	5.745.856	4.479.500
ANAFE	Etorkinak gizarteratzeko plan integrala Larrialdietarako etxebizitza eta bitartekotza etxebizitzaren arloan	155.454,53	245.142,06	232.939,85	30.944.654	24.889.592	18.105.500
UGT	Etorkinak gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza programa	13.744,70	59.683,26	51.547,89	8.042.228	3.700.000	2.125.000
GURUTZE GORRIA (Gizarte zerbitzuak)	Etorkinei laguntzekozerbitzu ibiltaria Gizarte zailtasunak dituzten emakume etorkinentzako tutoretzapeko pisua	44.551,09	115.889,50	105.422,95	7.894.228		
GURUTZE GORRIA Prestakuntza zentroa	Gidatzeko baimena Bitartekotza Eskola	52.381,58					
AFRIKA ETXEA	Etorkinak hartzeko etxea	37.094,34	36.104,34	35.246,44	2.000.000		
M <sup>a</sup> Inmaculadako mojak Lizarra	Etorkinen gizarteratzea	10.309,00					
Santa Lucia	Gizarte sustapenerako zentroa	26.973,28	134.851,09	153.564,19			
AENA	Kulturarteko jardunaldia				350.000	350.000	200.000
Iruñeko Udala	Prestakuntza eta informazio programa			41.770,23	6.658.990		
UAGN	Gizarte laguntza sasoikako langileen kanpalekuetan				1.657.673		
Nafarroako Ospitaleko boluntario elkarteak	Gaixoen laguntza				330.000		
Mendabiako Udala	Gizarte laguntza sasoikako langileen kanpalekuetan		4.269,04	6.278,84			
APROE	Kulturen arteko astea			5.527,00			
SSB Erriberri	Kulturarteko jardunaldiak			911,54			

## "Gutxiengo etnikoak sustatzeko dirulaguntzak"

Entitatea	Proiektua/Ekintza	2004ko dirulaguntza eurotan	2003ko dirulaguntza eurotan	2002ko dirulaguntza eurotan	2001eko dirulaguntza pezetatan	2000ko dirulaguntza pezetatan	1999ko dirulaguntza pezetatan
La Majari	Ijitoen gutxiengo etnikoaren sustapena	61.000,00	61.000,00	58.000,00	10.300.000	10.000.000	9.909.000
La Romani	Ijitoen gutxiengo etnikoaren sustapena	78.000,00	78.000,00	78.000,00	13.900.000	12.000.000	15.626.579
Ijitoen elizbarrutiko idazkaritza	Ijitoen gutxiengo etnikoaren sustapena	20.400,00	20.400,00	17.640,00	3.251.030	3.000.000	3.000.000
Nafarroako GazKalo federazioa	Ijitoen gutxiengo etnikoaren sustapena	98.000,00	98.000,00	95.000,00	17.250.000	12.000.000	
Unión Social Calí	Idem	4.600,00	4.600,00	4.600,00	800.000	980.000	963.500
San Juan	Idem	4.000,00	4.000,00	4.000,00	700.000	650.000	600.000
Virgen deNieves	Idem	5.000,00	5.000,00	5.000,00	900.000	600.000	557.500
TafallakoCáritas	Idem	3.600,00	3.600,00	3.600,00	700.000	700.000	699.000
Virgen delSoto	Idem	2.500,00	2.500,00	2.500,00	360.000	600.000	515.000
La Chachipen							
Galo Calo	Idem	7.800,00	7.800,00	7.800,00	1.400.000	1.000.000	
Undiben	Idem	3.300,00	3.300,00	3.300,00	600.000	1.956.000	2.340.000
A la Chi Cali	Idem	2.455,00	2.455,00				
La Cali	Idem	4.600,00	4.600,00	4.600,00		950.000	947.000
Ker Cali	Idem	3.300,00	3.300,00	3.300,00			
Penela laChachipen	Idem	9.000,00	9.000,00	9.000,00	1.600.000	1.450.000	
La Tali	Idem			1.000,00	250.000		
SSB Allo	Idem			1.200,00	200.000		
Txiki Merced	Idem				1.500.000	1.500.000	1.295.265
Ijitoen idazkaritza orokorra	Idem		33.598,53	45.358,02	9.224.037		



Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2004ko ekainaren 8an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

---

## **Galdera, PFEZren aitortzea egiten laguntzeko programa informatikoari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Jesús Pardo Gurpegui jaunak PFEZren aitortzea egiten laguntzeko programa informatikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 24ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Jesús Pardo Gurpegui jaunak galdera egin du PFEZ aitortzea egiten laguntzeko programa informatikoari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak neurriren bat hartu behar al du bideratzeko MacOS (Apple) edo Linux (doako sistema eragilea) erabiltzen duten nafarrek PFEZren aitortzea egiten laguntzeko programa, Nafarroako Gobernuko web orrian dagoena, erabili ahal izan dezaten, Windows sistema erabiltzen dutenen baldintza berdinetan?

Bai. Gaur egun, interneten bidez eskaintzen diren zerbitzu gehienak XML estandarrekin bateragarria den edozein plataformatatik eskura daitezke. Arrazoi teknikoengatik berriazko funtzionaltasunak erabili behar dituzten zerbitzuetako batzuk, berriz, MS Windows sistemarako garatu

dira lehendabizi, hori baita Nafarroan gehien erabiltzen den sistema eragilea. Hala eta guztiz ere, funtzionaltasun horiek beste plataforma batzuetara zabaltzeko lanean ari gara.

2. Nafarroako Gobernuak "plataforma anitzeko" programazio lengoaiak -esate baterako, Java, Sun Microsystemsena-erabiliko al ditu? Izan ere, lengoai horiek aukera ematen dute aplikazioak edozein sistema eragilerekin (Windows, MacOS, Linux, OS/2 eta abar) exekutatzeko, eta horrek bidea emanen luke garapen-inbertsio bakarra eginenez errenta aitortzea egiteko programa sistema eragile horiekin guztiekin erabili ahal izateko.

Nafarroako Gobernuak Java teknologia aspalditik erabiltzen du foru administrazioko aplikazio informatiko garrantzitsuenetako batzuk programatzeko; adibidez, EDUCANET sistemarako.

2000. urtean Nafarroako Gobernuak lankidetz hitzarmen bat sinatu zuen Sun Microsystems enpresarekin eta CEINekin eta, horren ondorioz, Nafarroako Java Zentroa sortu zuen, hain zuzen Sunek Espainian ziurtatutako lehenengoetako bat. Java zentroa informazioaren teknologietako ingurune irekietako profesional berrien sorleku garrantzitsu bilakatu da azken lau urteotan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 9an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

## **Galdera, Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberviola andreak Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 24ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberviola andreak galdera egin du Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunei buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. Helburu eta neurrien plangintzarik ba al dago azpiegiturak eta sistemak ezarri eta kudeatzeko, Nafarroan jakintzaren ekonomia dinamikoagoa eta lehiakorragoa lortzeko?

Bai. Horretarako, Nafarroako Gobernuak ondoko planak prestatu ditu:

- Informazioaren gizartea eta telekomunikazioak Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko plana.

- Foru administrazioa modernizatzeko plana.

- Nafarroako Foru Komunitateko telekomunikazioen azpiegiturei buruzko plan zuzendaria.

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorearen estrategia.

- Nafarroako plan teknologikoa.

2. Zein jarduketa daude informazioaren gizartean ikerketa bultzatzeko, teknologia, azpiegiturak, zerbitzuak, aplikazioak eta haien edukiak garatzeari begira?

Nafarroako Gobernuak hainbat ekintza burutu ditu teknologiaren, azpiegituren, zerbitzuen eta horien edukien garapena sustatze aldera.

Ekintza horiek aurreko galderan aipatzen diren planak gauzatzearen ondorioz egin dira.

Halaber, plan horien ondorioz Nafarroako Java zentroa, Linux zentroa eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Telekomunikazioen I+G zentroa sortu dira.

3. Sareen eta sarbideen segurtasuna indartze-ko neurririk hartu al da, erabiltzaileek merkataritza elektronikoa konfiantza izan dezaten?

Orain dela gutxi Nafarroako Gobernuak Foru Administrazioarako Informazioaren Segurtasunari buruzko Plana onetsi du, eta bertan hainbat jarduketa aurreikusten dira, aipatzen den arloarekin zerikusia dutenak.

Esan behar da Nafarroako Gobernuak lankidetzaren hitzarmen bat duela Estatuko Administrazio Orokorrekin, produktuen homologazioaren bitartez erosketen telematikoa egiteko. Urte honen hasieratik web aplikazio batean oinarritzen den sistema hori Gobernuak egiten dituen erosketetarako erabiltzen da. Orain sistema horri atxiki nahi zaizkion toki entitateetara nola zabaldu aztertzen ari gara.

4. Hartu al da neurririk sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren sustatzeko, informazioaren azpiegituren fidagarritasunaren arloan?

Erakunde eta enpresa pribatuek informazioaren gizartearen arloan sustatzen diren proiektu askotan parte hartzen dute. Horien artean Infocal da aipatzekoa, finantza-entitate batekin lankidetzan emandako txartel digitalak erabiltzea ahalbidetzen baitu.

5. Zein kudeaketa egiten edo zein neurri hartzen ari dira guztiok, herritarrok eta administrazioek Interneteko banda zabala erabiltzeko aukera izan dezagun?

Une honetan Nafarroako Foru Komunitateko telekomunikazioen azpiegiturei buruzko plan zuzendariaren prestaketa amaitzen ari gara, eta bertan zehaztuko dira Nafarroan Interneteko banda zabala hedatzeko hartu beharreko neurriak.

Jakina den bezala, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetarako ezarri zuen helburuetako bat da Interneteko banda zabala Nafarroako herri guztietara zabaltzea.

6. Noraino erraztu behar da Nafarroako herritarrek dekodigailuak erabil ditzaten telebista digitala ikusteko?

TDT dekodegailuak TDTaren adjudikazioa jaso zuten operatzaileek eginiko eskaintzan zehaztutako sustapen neurrien arabera banatuko dira.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako Gobernuak kontuan hartuko ditu Espainiako Gobernuak TDTa sustatzeko bultzatzen dituen neurriak, Nafarroako herritarrek ere balia ditzaten.

7. Europako zein programa erabiltzen edo aprobetxatzen ari dira, gaur egun abian diren eta 2010. urtera arte aurreikusi diren eta, nafar guzti-ek informazioaren gizaratez baliatu ahal izan daitezkeen bermatzeko, eta beste alderdi batzuk indartzeko (foru erkidegoaren lehiakortasuna, informazioaren gizaratearen I+G, on line administrazioa, ikaskuntza elektronikoko zerbitzuak, osasun zerbitzu elektronikoa, negozio elektronikoa, informazio segururako azpiegitura, jende guztiak banda zabaleko sarbidea izatea prezio lehiakorretan, ebaluazio konparatiboak, praktika zuzenen zabalpena egitea eta "eten digitala" saihestea)?

Europako funtsen programak 2000-2006 aldia bakarrik hartzen du, eta horrenbestez, galderak aipatzen duen aldia hartzen duen Europako programarik ez dago.

Dena den, gaur egun ondoko programetan parte hartzen dugu: DOCUP2, 3. Helburua programa operatiboa, Interreg 3 ekimena eta Ekintza Berritzaileak programan. Horretaz gain, eskualde mailako programak prestatzen ari dira.

8. Zein jarduketa aurreikusi ditu departamentuak, berez, Opatel edo beste entitate publiko nahiz pribatu batzuekin Nafarroan komunikazio azpiegiturak egiteko legegintzaldi honetan?

Jarduketa horiek aipatu den eta prestatzen ari garen Nafarroako Foru Komunitateko telekomunikazioen azpiegiturari buruzko plan zuzendarian zehaztuko dira.

9. Zer sistema daude departamentuen artean koordinatzeko, halakorik badago, Nafarroako administrazio publikoen jarduketak homogeneoak izan daitezkeen? Beste entitate publiko nahiz pribatu batzuek parte hartzen al dute? Zein dira?

Departamentuen arteko koordinazioa Informazioaren Gizarterako Departamentuarterako Batzordearen bidez egiten da. Departamentu guztiek ordezkari bat dute batzorde horretan.

Nafarroako beste erakunde publiko eta pribatu-ek Nafarroako Telekomunikazioen Kontseilu Aholku-emaiaren bidez parte hartzen dute.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 9an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,27 »	